

**2010EKO AZARAOREN 12AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamabia.

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hamar.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Josi Insausti Mujika

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

EZ DA ETORRI: Fernando Boada González

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko urriaren 22ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- KONTRATUA LUZATZEA. J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak egiteko AYTASArekin kontratua luzatzea.

Alkatea jaunak eremu horretan egindako ekintzen berri eman du eta adierazi du, Arana kaleko 3 eta 4 eraikineko jabeek igogailua jartzeko erabakia hartu dutela, J. M. Iturriotz kaleko 8 eta 10 zenbakietakoek ere bai. Aldiz, Arana kaleko 5. eraikina dela arazo gehiena duena, proiektuak eginak dituzte, baina erabakia hartu beharrean daude exekutatzeko eta agian jabetza erkidego horretan sortuko da realojatzeko beharra, higiezin hori baita arazo gehien dituen. Orokorrean koadro elektrikoak eta zorrotenak aldatu beharrean daude eta igogailuak jartzeaz gain fatxadak ere konpondu egin behar dira.

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzak, bakarrik jabeek lortu ditzakete eta ezin da inolaz ere etxebizitza alokatuta egon, dirulaguntzak horiek bizi diren jabeentzat baitira.

Aldi berean, enpresa berak, hau da AYTASAk kudeatzen duen BIZIGUNE programa inguruan adierazi da, atzerapen handia dagoela norbaitek etxebizitza alokairuan lortzea eskatzen duenetik, erantzuna eman arte eta badirudi Eusko Jaurlaritza zerbitzu hori kentzekotan ere ibili dela. Dena dela oraindik mantendu egiten da.

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. . M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak egiteko AYTASArekin dagoen kontratua luzatzea, hain zuzen ere, 2011ko urriaren 1erarte. Egungo prezioari KPI erantsiko zaio.

Bigarren. BIZIGUNE programa burutzeko AYTASArekin dagoen kontratua ere beste urte betez luzatzea, hau da, 2011ko martxoaren 12rarte. Kontratuaren prezioa orain dagoen berdina izango da.

3.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Baldintza plegua onartzea eta deialdia egitea, Igartzako multzo monumentalak kudeatu eta ustiatzeko.

Ezagutzera eman da Igartzako multzo monumentalak kudeatu eta ustiatzeko prestatu den baldintza plegua eta proposatzen da deialdi publikoa egitea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, eskaintzak aurkezteko 20 egun emanaz.

Lizitazio prezioa, 30.000 € gehin BEZ izango da eta esleipen irizpideak ondorengoak izango dira: jardueren memoria (25 puntu), proposamen ekonomikoa (15 puntu) eta hobekuntzak (10 puntu).

Iraupena: bi urte froga moduan. Epe hau amaitutakoan, Kulturako eta Igartzako Batzordeen txostenak direla medio, erabakiko da kontratua mantentzea edo bertan behera uztea.

PP, EB eta EAJko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Josi Insausti, ALKARBIDeko zinegotziak adierazi du zeharkako kudeaketa izatearekin ados dagoela, baina ez baldintza pleguan ezarritakoarekin, adjudikaziodunak izango dituen betebeharrak buruz eta zehazki, betebeharrak honekin: kafeteria eta catering zerbitzua ematearena, erabiltzaileek horrela eskatzen badute.

Bere ustetan, idatzita dagoen moduan erabiltzaileek ezin dute catering zerbitzua aukeratu baizik eta izan behar du adjudikaziodunak eskaintzen diena eta hori ez du onartzen pentsatzen duelako erabiltzaileek libertatea izan behar duela nahi duena aukeratzeko.

Catering zerbitzua eman behar duenak legeak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzeko eta elikagai manipulatuak txartela ere izateko eskatu behar zaiola dio eta agian sustapen turistikoa GOITUREn bidez egitea garrantzizkoa izan daitekeela dio.

Azkenik esan du, adjudikaziodunak ere eremu horretarako Larrialditasun Plana ezagutzea ezinbestekoa dela.

Alkatea jaunak erantzun dio esanez edozein tabernariak parte hartu dezakeela prozedura honetan. Berarentzat catering eskusibitatea izatetik etorri daiteke diru-sarrerarik gehiena.

Larrialditasun Planari buruz ezagutzera eman du, hori egitea Udalari dagokiola eta Igartzako berrikuntza proiektua egin zuen arkitektoari eskatuko zaiola egiteko. Dena dela ados azaldu da, adjudikaziodunak Plan hori ezagutu beharrekin.

Behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.